Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

3692

EBAZPENA, 2010eko ekainaren 11koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Arabako Lurralde Historikoko behe-lurretako trikuharriak monumentu-multzo gisa Kultura Ondasun Kalifikatu izendatzeko deklarazioan informazioa jendaurrean jarri eta interesdunei entzuteko izapide berri bat egiteko dena, «El Montecillo» trikuharria (Eskuernaga) bertan sartuz multzoaren mugaketa zabaltzeari begira.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioko 148.1.16 artikuluaren babesean eta Autonomia Estatutuko 10.19 artikuluaren arabera, kultura-ondareari buruzko eskumen osoa bereganatu zuen. Aipaturiko eskumen horretaz baliatuz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena, onartu zen.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen 2010eko maiatzaren 3ko Ebazpenaren bidez (EHAAren 96. zk., maiatzaren 24koa, eta ALHAOren 52. zk., maiatzaren 14koa), hasiera eman zitzaion Ebazpenaren I. eranskinean zerrendatzen diren Arabako Lurralde Historikoko behe-lurretako trikuharriak monumentu-multzo izendapenaz sailkatutako kultura-ondasun deklaratzeko espedienteari. Egintza horrekin batera, monumentu-multzoa osatzen duten 15 trikuharriren deskribapena eta mugaketa biltzen duen zerrenda jaso zen.

Ebazpena jakinarazi eta berehala, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakin zuen beste trikuharri bat aurkitu dela berriki. Hura induskatzen ari zen zuzendariak une horretan emandako datuen arabera, trikuharria Arabako behe-lurretako trikuharrien multzoaren zati bat izan zitekeen, eta uste hori egiaztatu zen Kultura Ondarearen Zentroko zerbitzu teknikoek ondasuna bisitatu eta aztertu ostean.

Horrenbestez, azken aurkikuntza berriek emaniko informazioaren arabera, Multzoaren zatitzat identifikatutako trikuharri berri bat agertu denez, multzoaren hasierako mugaketa zabaldu egiten da, trikuharria bertan sartzeko. Beraz, Kultura Ondarearen Zentroko zerbitzu teknikoek aurkeztutako txostenak eta ebazpen-proposamena aintzat hartuta, hau

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

3692

RESOLUCIÓN de 11 de junio de 2010, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se abre un nuevo periodo de información pública y audiencia a los interesados del expediente incoado para la declaración de Bien Cultural Calificado, con la categoría de Conjunto monumental, a favor de los dólmenes de tierras bajas de Álava, para ampliar la delimitación del Conjunto introduciendo el Dólmen de «El Montecillo» (Villabuena de Álava).

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural. En su desarrollo, se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco que rige los procedimientos de declaración de bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Mediante Resolución de 3 de mayo de 2010, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes (BOPV 96, de 24 de mayo y BOTHA 52, de 14 de mayo de 2010), se incoó expediente para la declaración de Bien Cultural Calificado, con la categoría de Conjunto Monumental, a favor de los dólmenes de tierras bajas relacionados en el anexo I de ésta y que se hallan en el Territorio Histórico de Álava. Esta incoación incluye la relación de 15 dólmenes que se describen y delimitan como partes del Conjunto Monumental.

Inmediatamente a la notificación de dicha Resolución se tiene conocimiento, en el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, del reciente descubrimiento de un nuevo dolmen que, por los datos que nos ofrece el director de las excavaciones arqueológicas que se estaban realizando en ese momento, podría formar parte integrante del Conjunto incoado, lo que se confirma tras la visita y revisión del mismo, según señala el informe de los servicios técnicos del Centro de Patrimonio Cultural.

Así, a la vista de los nuevos y recientes descubrimientos realizados, al confirmar la aparición de un nuevo dolmen identificado como parte del Conjunto, se procede a la ampliación de la delimitación inicial del conjunto para darle cabida a éste. Por tanto, atendiendo a los informes y a la propuesta de resolución presentada por los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural Vasco,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Aldatzea Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen 2010eko maiatzaren 3ko Ebazpenaren I., II. eta IV. eranskinak. Ebazpen horren bidez, hasiera eman zitzaion I. eranskinean zerrendatutako Arabako Lurralde Historikoko behelurretako trikuharriak monumentu-multzo izendapenaz sailkatutako kultura-ondasun deklaratzeko espedienteari eta jendaurrean jarri zen. Hauxe da aldaketa:

I. eranskinean (Mugaketa), «El Montecillo» trikuharria (Eskuernaga) sartuko da monumentu-multzoan.

Haren izena erantsiko zaio, gainera, multzoa osatzen duten trikuharrien zerrendari; haren deskribapen labur bat, ordea, II. eranskinari (Deskribapena).

Halaber, IV. eranskinean (Mugapenak), maiatzaren 3ko Ebazpenak biltzen zituen 15 planoak ez ezik, beste bat gehituko da, «El Montecillo» trikuharria (Eskuernaga) barne hartzeko ezarritako mugapenari dagokiona.

Bigarrena.– Behin mugaketa eta deskribapena I., II. eta IV. eranskinen araberako zabalkundeaz aldatu eta gero, eta Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen maiatzaren 3ko Ebazpeneko III. eranskineko Babes Araubideari eutsita, Arabako Lurralde Historikoko behe-lurretako trikuharriak monumentu-multzo izendapenaz sailkatutako kultura-ondasun deklaratzeko espedientea jendaurrean jartzeko epe berri bati hasiera ematea. Hogei eguneko epea zabaltzen da informazioa jendaurrean jartzeko, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, egoki iritzitako alegazioak eta dokumentuak aurkezteko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 84. eta 86. artikuluetan xedatutakoari jarraituz. Espedientea Kultura Ondarearen Zentroan dago ikusgai (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz).

Hirugarrena.– Eskuernagako Udalari eta Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailari eta Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Sailari honako honen berri ematea: prozedura honi hasiera emateak eraginpeko lursailetan lur-zatiketak, eraikuntzak edo eraisketak egiteko udal-baimenen ondorioak eten egiten dituela, baita dagoeneko eman direnenak ere. Lursail horietan ezinbestean eta gerorako utzi ezin daitezkeen lanak egin behar badira, betiere dagokion Foru Aldundiaren baimena eskuratu beharko da.

RESUELVO:

Primero.– Modificar los anexos I, II y IV de la Resolución de 3 de mayo de 2010, del Viceconsejero de Cultura y Deportes, por la que se incoa y se somete a información pública y audiencia a los interesados el expediente para la declaración de Bien Cultural Calificado, con la categoría de Conjunto Monumental, a favor de los dólmenes de tierras bajas relacionados en el anexo I, que se hallan en el Territorio Histórico de Álava de la manera que sigue:

Se incluye en el anexo I (Delimitación), el Dolmen de El Montecillo (Villabuena de Álava) entre los que forman parte de este Conjunto Monumental.

Así mismo, se añadirá su nombre en la relación de dólmenes que constituyen parte de este Conjunto, así como una breve descripción del mismo en el anexo II (Descripción).

Igualmente, en el anexo IV (Delimitaciones), además de los 15 planos que incluía la Resolución de 3 de mayo, se incluirá uno más, correspondiente a la delimitación establecida para incluir el Dolmen de El Montecillo (Villabuena de Álava).

Segundo Abrir un nuevo período de información pública del expediente incoado para la declaración de Bien Cultural Calificado, con la categoría de Conjunto Monumental, a favor de los dólmenes de tierras bajas que se hallan en el Territorio Histórico de Álava, una vez ha sido modificada su delimitación y descripción, ampliando ésta de acuerdo con lo señalado en los anexos I, II y IV y manteniendo el régimen de protección previsto en el anexo III de la Resolución de 3 de mayo del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes. Se abre un plazo de 20 días contados a partir del día siguiente a la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, en el que se puedan efectuar las alegaciones y presentar la documentación que se estime oportuna, como previenen los artículos 84 y 86 de la Ley 30/1992, del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, encontrándose el expediente de manifiesto en el Centro de Patrimonio Cultural Vasco, sito en la calle Donostia-San Sebastián n.º 1 de Vitoria-Gasteiz.

Tercero.– Hacer saber al Ayuntamiento de Villabuena de Álava, así como a los Departamentos de Euskera, Cultura y Deportes y de Administración Local y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Álava que la incoación del presente procedimiento causa la suspensión de las correspondientes licencias municipales de parcelación, edificación o demolición en las fincas afectadas, así como de los efectos de las ya otorgadas. Las obras que por razón de fuerza mayor hubieran de realizarse con carácter inaplazable en las fincas precisarán, en todo caso, autorización de la Diputación Foral.

Laugarrena.– Espedientearen izapideekin jarraitzea, indarrean dauden xedapenekin bat etorriz.

Bosgarrena.– Ebazpen honen berri ematea Eskuernagako Udalari, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailari eta Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Sailari eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari ere.

Seigarrena.– Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekainaren 11.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

Cuarto.– Continuar la tramitación del expediente de acuerdo con las disposiciones vigentes.

Quinto.– Notificar la presente Resolución al Ayuntamiento de Villabuena de Álava, a los Departamentos de Euskera, Cultura y Deportes y de Administración Local y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Álava, así como al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.

Sexto.– Publicar la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco y en el BOTHA para su general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 11 de junio de 2010.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

I. ERANSKINA

MUGAKETA. ALDAKETA

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen 2010eko maiatzaren 3ko Ebazpenean (EHAAren 96. zk., maiatzaren 24koa), I. eranskinean, honako lerroalde honen ordez:

«Monumentu-multzoan sartzen diren trikuharriak hauek dira: Chabola de la Hechicera eta El Encinal (Bilar); Lazaya, San Martín, Alto de la Huesera eta Los Llanos (Laguardia); El Sotillo (Leza/Laguardia); La Mina eta La Lastra (Lantarón); Sorginetxe (Agurain); Aizkomendi (Donemiliaga); San Sebastián, San Sebastián I, Gurpide Hegoa eta Gurpide Iparra (Kuartango).»

Honakoa esan behar du:

«Monumentu-multzoan sartzen diren trikuharriak hauek dira: Chabola de la Hechicera eta El Encinal (Bilar); Lazaya, San Martín, Alto de la Huesera eta Los Llanos (Laguardia); El Sotillo (Leza/Laguardia); La Mina eta La Lastra (Lantarón); Sorginetxe (Agurain); Aizkomendi (Donemiliaga); San Sebastián, San Sebastián I, Gurpide Hegoa eta Gurpide Iparra (Kuartango); eta El Montecillo (Eskuernaga).»

II. ERANSKINA

DESKRIPZIOA. ALDAKETA

Jarraian, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen 2010eko maiatzaren 3ko Ebazpenean (EHAAren 96 zk., maiatzaren 24koa) «El Montecillo»

ANEXO I

DELIMITACION. MODIFICACIÓN

En el párrafo de la Resolución de 3 de mayo de 2010, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes (BOPV 96, de 24 de mayo), donde dice:

«Los dólmenes que quedan incluidos como parte de este Conjunto Monumental son los que siguen: Chabola de la Hechicera, El Encinal (Elvillar); Layaza, San Martín, Alto de la Huesera, Los Llanos (Laguardia) y el Sotillo (Leza/Laguardia); La Mina, La Lastra (Lantarón); Sorginetxe (Salvatierra); Aizkomendi (San Millán); San Sebastián, San Sebastián I, Gurpide Sur y Gurpide Norte (Kuartango)».

Debe decir:

«Los dólmenes que quedan incluidos como parte de este Conjunto Monumental son los que siguen: Chabola de la Hechicera, El Encinal (Elvillar); Layaza, San Martín, Alto de la Huesera, Los Llanos (Laguardia) y el Sotillo (Leza/Laguardia); La Mina, La Lastra (Lantarón); Sorginetxe (Salvatierra); Aizkomendi (San Millán); San Sebastián, San Sebastián I, Gurpide Sur, Gurpide Norte (Kuartango) y El Montecillo (Villabuena de Álava)».

ANEXO II

DESCRIPCIÓN. MODIFICACIÓN

A continuación se señalan únicamente los párrafos que se ven modificados en este anexo de la Resolución 3 de mayo de 2010, del Viceconsejero de

trikuharria (Eskuernaga) sartu ahal izateko aldatzen diren lerroaldeak agertzen dira:

Multzoa 16 trikuharrik osatzen dute, honako udalerri hauetan kokatuak: Kuartango, Lantarón, Agurain, Donemiliaga, Laguardia, Leza, Bilar eta Eskuernaga.

(…)

Hauek dira monumentu-multzoa osatzen duten elementuak:

– Chabola de la Hechicera eta El Encinal trikuharriak (Bilar).

– Layaza, San Martín, Alto de la Huesera, Los Llanos (Laguardia) eta El Sotillo (Leza/ Laguardia) trikuharriak.

– La Mina eta La Lastra trikuharriak (Lantarón).

– Sorginetxe trikuharria (Agurain).

– Aizkomendi trikuharria (Donemiliaga).

– San Sebastián, San Sebastián I, Gurpide Hegoa, Gurpide Iparra trikuharriak (Kuartango).

– El Montecillo trikuharria (Eskuernaga).

(…)

El Montecillo trikuharria (Eskuernaga) Ganbera sei ortostaroz osaturik duen galeria-hilobia da. Horiek gutxi gorabehera 2,50 x 2,30 metroko gune poligonala eratzen dute barrualdean. Korredoreko bi lauza kontserbatzen ditu, beherago daudenak, eta horiei esker dakigu zabalera 2,5 metro dela. Korredorearen ingurumarian lur-tumulu bat eta harri handi batzuk daude, zeintzuek jatorriz hilobi-egitura osoa estaliko baitzuten. Gain batean dago –hortik datorkio deitura–, mahastiz inguraturik. Duela gutxi arte trikuharria dagoen tokian bertan ere mahastiak landuko ziren.

IV. ERANSKINA

MUGAPENAK. ALDAKETA

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen 2010eko maiatzaren 3ko Ebazpenean (EHAAren 96 zk., maiatzaren 24koa), IV. eranskinean, honako plano hau gehituko zaie orain arteko 15 planoei:

Cultura, Juventud y Deportes (BOPV 96, de 24 de mayo), para incluir el dolmen de El Montecillo, en Villabuena de Álava:

Forman parte de este conjunto un grupo de dólmenes, 16 en número, localizados en los términos municipales de Kuartango, Lantarón, Salvatierra, San Millán, Laguardia, Leza, Elvillar y Villabuena de Álava….

(…)

Los elementos que constituyen parte de este conjunto Monumental son los que siguen:

– Dólmenes Chabola de la Hechicera y El Encinal (Elvillar).

– Dólmenes de Layaza, San Martín, Alto de la Huesera, Los Llanos (Laguardia) y el Sotillo (Leza/ Laguardia).

– Dólmenes de la Mina y la Lastra (Lantarón).

– Dolmen de Sorginetxe (Salvatierra).

– Dolmen de Aizkomendi (San Millán).

– Dólmenes de San Sebastián, San Sebastián I, Gurpide Sur, Gurpide Norte (Kuartango).

– Dolmen de El Montecillo (Villabuena de Álava).

(…)

Dolmen de El Montecillo (Villabuena de Álava). Sepulcro de corredor cuya cámara se configura en base a 6 ortostatos que delimitan un espacio poligonal de dimensiones aproximadas 2,50 x 2,30 metros al interior. Conserva también dos losas del corredor, estas de menor altura, que permiten conocer su anchura, unos 2,5 metros. Alrededor de este se dispone el túmulo de tierra y grandes piedras que en origen cubriría toda la estructura funeraria. Se instala en un alto que le da su nombre, rodeado de viñas, cultivo que hasta no hace tanto también debió practicarse en las tierras donde se emplaza este.

ANEXO IV

DELIMITACIONES. MODIFICACIÓN

Se modifica este anexo de la Resolución 3 de mayo de 2010, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes (BOPV 96, de 24 de mayo), añadiendo, en el anexo IV a los 15 planos existentes el que sigue:


OHARRA - LEYENDA
EL MONTECILLO TRIKUHARRIA / DOLMEN EL MONTECILLO
Zona 1 / 1. eremua
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
EL MONTECILLO TRIKUHARRIA / DOLMEN EL MONTECILLO
VILLABUENA DE ÁLAVA / ESKUERNAGA
01057
ALAVA
LAGUARDIA
1 : 1.500
02/06/2010
La Jan
Montecillo
San Martin
515.53
507.54
497.73
1